

# **ONARPEN PROZESUARI BURUZ MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK**

**2019-2020 IKASTURTEA**

# ESKABIDEARI ETA IKASTETXE-AUKERA ASKATASUNARI BURUZ

## **Zenbat eskabide aurkez ditzaket?**

Eskabide bakarra. Bat baino gehiago aurkeztekotan, esleipenean ez da kontuan hartuko haietako bat ere ez.

## **Horrek esan nahi du ikastetxe bat soilik eska dezakedala?**

Ez. Zure eskabidean hamabi eskari arte sar ditzakezu. Eskari bakoitza ikastetxea + hizkuntza-eredua konbinazio ezberdin bat izango da.

## **Eskari ezberdinak eskatzeko ordenak ez du axola?**

Bai axola du. Eskari ezberdinak zure lehentasunen arabera ordenatu behar dituzu, haietatik esleipenean ahalik eta hoberena ematen saiatuko baikara ordena horren arabera.

## **Nire ikastetxean jarraitzeko eskabiderik aurkeztu behar al dut?**

Bi urteko mailan edo altuagoan matrikulatuta bazaude, hizkuntza-eredu horretan ikastetxean jarraitzea bermatuta dago, baldin eta zure ikastetxeak egiten ari zaren mailaren hurrengoa ematen badu.

## **Ikastetxe batean urte bateko gelan banago, jarrai dezaket ikastetxe berean 2 urteko mailan eskabidea aurkezteko beharrik gabe?**

Ez. Ikastetxe batean urte bateko gelan bazaude, eta ikastetxe bereko 2 urteko gelan jarraitu nahi baduzu, onarpen-prozesuan hartu behar duzu parte eta eskabidea aurkeztu.

## **Nire ikastetxean hizkuntza-ereduz aldatu nahi badut eskabidea aurkeztu behar dut?**

Bai, hizkuntza-eredu berean jarraitzea bakarrik duzulako bermatuta.

## **Orain egiten ari naizen mailaren hurrengoa edo berbera eska dezaket era berean, gaindituko dudan ala errepikatuko dudan ustearen arabera?**

Ez. Epe arruntean orain egiten ari zaren mailaren hurrengorako eskabidea soilik aurkez dezakezu.

## **Guraso banandutakoen kasuan espezifikotasunaren bat al dago?**

Ikastetxean onartzea edo beste batera lekualdatzea unilateralki gurasoetako bati eskatzea baimentzen dion epailearen sententziarik egon ezean, eskabidearen izapidea egiteko bi alderdien adostasuna beharrezkoa da. Desadostasunik egotekotan eskabidea ezin izango da tramitatu baimentzen duen epailearen sententzia eman arte.

# ESKABIDEAREN AURKEZPENARI BURUZ

## **Nola aurkez dezaket eskabidea?**

Eskabidea aurkezteko bi bide daude: Internetez (on-line) eta presentzialki.

## **Zein da eskabidea aurkezteko epea?**

Eskabidea presentzialki egiten bada, 2019ko urtarrilaren 28a eta otsailaren 8a bitartean. On-line azken eguna 2019ko otsailaren 7a izango da 24:00ak arte.

## **Eskabidea Internetez aurkezten badut, badut abantailaren bat?**

Eskabidearen efektua bera da, baina ikastetxera joatea saiheuts dezakezu, zure ordenagailutik eskatutako dokumentazio guztia eskaneatuta erantsi ahal izango duzulako, nahitaez aurkeztu behar duzuna nahiz baremoko puntuaziora sartzeko borondatez gehitu behar duzuna.

## **Zer dokumentazio aurkeztu behar dut nahitaez?**

Izaera orokorraz: familia-liburua edo dokumentu baliokidea, aita eta amaren NAN, familiaren erroldatze-ziurtagiria. Gaur egun EAEtik kanpo ikasten baduzu eta Lehen Hezkuntzarako edo DBHrako onarpena eskatzen baduzu, ikasketa-ziurtagiria behar da.

## **Zer dokumentazio aurkeztu behar dut baremoko puntuak lortzeko?**

Zona-puntuak bizilekuagatik lortzeko, nahitaez aurkeztu behar den familiaren erroldatze-ziurtagiria nahikoa da; familiaren errentagatiko puntuetarako, EAEn bizi bazara, nahikoa da Hezkuntza Saila baimentzea zure datuak Foru Aldundiarekin kontsultatzeko; adingabeko seme-alaba kopuruagatik puntuetarako, hura egiaztatzen duen familia-liburuaren fotokopia; baremoko gainerako ataletarako (aita edo amaren lantokia, eskatutako ikastetxean ikasten edo lan egiten duten senideak, familia ugaria, harrera, norbere edo senideen ezgaitasuna, kooperatibista-baldintza edo Ordezkaritza Organo Gorenak - OOG- edo ikastetxeko Eskola Kontseiluak askatasunez onartutako irizpideak), kasu bakoitzean eskatutako dokumentazioa.

## **Eskabidea presentzialki aurkeztu nahi badut, nola eta non egin dezaket?**

Eskabidea lehen aukera moduan eskatutako ikastetxean soilik aurkez daiteke.

## **Eskabidea presentzialki aurkezten badut, lehen aukera moduan eskatutako ikastetxean kudeaketa guztia egin dezaket?**

Bai baldin eta zure eskabidean ikastetxe bakar baterako eskariak soilik sartzen badituzu. Baina zure eskabidean ikastetxe bat baino gehiagorako eskariak sartzen badituzu, zure eskabidea lehenengo ikastetxean soilik osatu ahal izango duzu baldin eta eskatutako ikastetxea alde batera utzita ematen diren baremoko puntuak kontuan hartzea nahi baduzu (hau da, familiaren errenta, familia ugaria, harrera, ezgaitasuna) edo hurbiltasunagatik puntuak (hau da, ikastetxe bakoitzak erroldatze-ziurtagiriaren arabera lehen aukeran hautatutako ikastetxean erregistratutako dokumentazioa kontuan izanik barematu ahal izango du, edo bere kasuan, aitaren edo amaren lantokia egiaztatzen duen enpresa-ziurtagiria). Baina ikastetxe bakoitzean, ikastetxean lan egiten edo ikasten duten senideengatik, kooperatibista izateagatik edota OOG edo Eskola Kontseiluaren irizpideengatik ematen diren baremo-puntuetan sartu nahi baduzu, ziurtatu behar duzu eskatutako ikastetxe bakoitzean kasu bakoitzean eskatutako irizpidea betetzen dela; horretarako, hala behar denean, ikastetxe bakoitzean epe barruan beharrezko dokumentu egiaztatzailea entregatu behar izango duzu. Beste ikastetxeetako baremo espezifikorako dokumentazio hori entregatzeko, beharrezkoa da aurretik lehen aukerako ikastetxean eskabidea tramitatu izana.

## **Epez kanpo dokumentazio gehigarrikerantz ahal izango dut?**

Ez. Epe barruan nahitaezko dokumentazio guztia ez baduzu entregatzen, eskaera osatu gabe geratuko da eta plazen esleipenean ez da kontuan hartuko. Bestalde, esleipenean epe barruan egiaztatu gabeko baremo-puntuak ez dira kontuan hartuko.

# ESLEIPENARI BURUZ

## **Nola egingo da esleipena?**

Atxikitutako zentuetati datozen eskariak 2 urteko gelarako, Lehen Hezkuntzako I. maila edo DBHko I. mailarako lehentasuna izango dute. Jasotako eskarien guztizkoak postu libre kopurua gainditzen ez duenean, pertsona guztiak onartu dira. Eskari-kopurua plaza libreena baino handiagoa denean, baremazio-irizpideen arabera ordenatuko dira eta lehen postuak betetzen dituzten pertsonak postu horretan sartu ahal izango dira, plaza huts guztiak bete arte.

## **Plaza bat baino gehiago eslel diezadakete?**

Ez. Esleipena bakarra eta globala izango da eta pertsona bakoitzari plaza bakarra soilik esleitu ahal izango zaio.

## **Plaza bat esleituko didatela ziurtatuta daukat?**

Ez. Plaza bat esleituko zaizu baldin eta gutxienez zure eskarietako batean plaza gehiago badaude zure puntuazio bera duten eskariak baino.

## **Zer egoeratan geratzen naiz 2 urteko mailan plazarik lortzen ez badut?**

2 urteko mailan, plaza libreak dituzten ikastetxeek epe arruntetik kanpo jaso dituzten edo jasotzen ari diren eskariei erantzun ahal izango diete ikasturtea hasi arte.

## **Eta zer egoeratan geratzen naiz gainerako mailetan ez badut plazarik lortzen?**

Datorren ikasturtean jarraitutasuna bermatuta duzun ikastetxean jada ikasten ari bazara, ikastetxe berean jarraituko duzu. Datorren ikasturterako ikastetxe publikorik edo itunpekorik ez baduzu, Ordezkaritzak ofizioz plaza bat esleituko dizu eta zuk honi uko egin ahal diozu beste bat bilatzeko.

## **Seme edo alaba bat baino gehiagorentzat eskabidea aurkezten badut, haietako bati plaza esleitzen bazaio bestea automatikoki onartua izateko bermerik al dut?**

Ez. Onarpen-prozesuak banakako eskabideei erantzuten die eta pertsona baten eskubideak ezin zaizkio beste bati transferitu. Horrela, familia bereko bi kide bananduta gera daitezke onarpen-prozesuaren ondorioz: pertsona batek onarpena lor dezake eta besteak ez; edo biak onartuak izan daitezke, baina ikastetxe ezberdinetan.

# LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAKO IKASLEEN ZUZENeko SARBIDEARI BURUZ ADSKRIBATUTAKO INSTITUTUAN

**DBHrik ez duen ikastetxe batean 6. maila egiten ari banaiz, nire ibilbide-institutuan sartzeko eskabiderik aurkeztu behar al dut?**

Ez, ez baduzu hizkuntza-eredua aldatu behar edota ibilbide-ikastetxe bat baino gehiago badago eta haien artean aukeratu behar badut.

**Zein dira hizkuntza-eredu bererako institutu bat baino gehiago (BHI) adskribatuta dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak (HLHI)?**

Onarpen-aginduko I. eranskinean agertzen direnak dira:

- CEIP Ramón Bajo HLHI (Vitoria-Gasteiz), IES Koldo Mitxelena BHI eta IES Los Herrán BHIra adskribatua
- CEIP Ángel Larena HLHI (Artzentales), IES Balmaseda BHI eta IES Zalla BHIra adskribatua.
- CEIP Basurto HLHI, CEIP Cervantes HLHI, CEIP Indautxuko Eskola HLHI, CEIP Juan Manuel Sánchez Marcos HLHI, IES Martín de Bertendona BHI eta IES Miguel de Unamuno BHIra adskribatuak (denak Bilbokoak).
- CEIP Otxandio HLHI, CPI Ikasbidea Ikastola IPI (Arrazua-Ubarrundia) eta IES Juan Orobiogoitia BHIra (Iurreta) adskribatua.
- CEIP Aiete HLHI (Donostia-San Sebastián), IES Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI eta IES Antigua-Luberri BHIra adskribatua
- CEIP Bizarain ikastola HLHI (Errenteria), IES Bizarain BHI eta IES Koldo Mitxelena BHIra adskribatua

**Zuzeneko sarbidea bermatuta badut, ibilbidekoaren ezberdina den ikastetxea eskatzeko eskubidea galtzen al dut?**

Ez. Inork ez du galtzen onarpen-prozesuan parte hartzeko eskubidea, ibilbidekoaren ezberdina den ikastetxean sartzeko zein Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko I. mailara igarotzean ereduz aldatzeko. Baina eskubidea aurkezten ez badu, ibilbide-ikastetxean jarraitu nahi duela ulertuko da eta zuzeneko sarbidea lortuko du.

**Nire ibilbideko ikastetxean zuzeneko sarbiderako eskubidea badut, ibilbidekoaren ezberdina den ikastetxe baterako onarpen-eskabidea aurkez dezaket?**

Bai, baina kontutana araudiak aurreikusten duela zuzeneko sarbiderako eskubide hori galdu egiten dela lehen aukeran esleitutako ikastetxea eskatzen ez denean.

## MUSIKA-IKASLEENTZAKO SARBIDE LEHENTASUNARI BURUZ

### **Musika ikasten dut eta onarpen-prozesuan parte hartzen dut, lehentasunik al dut gainerako pertsonen aurretik?**

Ez beti, ia inoiz ez. Zuk bakarrik duzu lehentasuna Musika eta Dantzako ikasketa ARAUTUAK egiten badituzu eta onarpen-Aginduaren III. eranskinean Hezkuntza Sailak ezarri dituen Bigarren Hezkuntzako institutuetak (BHI) batean sartu nahi baduzu. Dantzako ikasketa arautuak egiten badituzu, Araban dago ikastetxe bakarra. Musikako ikasketa arautuak egiten badituzu, Araban ikastetxe bat dago, Gipuzkoan beste bat eta lau Bizkaian.

### **Musika eta Dantzako ikasleek lehentasuna duten institutu horiek curriculum berezia ematen al dute?**

Ez. Bigarren Hezkuntzako institutu arruntak dira.

### **Musika eta Dantzako ikasketa arautuak Bigarren Hezkuntzako beste edozein ikastetxetan bateragarri egin ditzaket?**

Jakina, ikasle gehienek egiten dutena da.

## INFORMAZIORAKO ETA ZERRENDETARAKO SARBIDEARI BURUZ

### **Non kontsulta dezaket ikastetxe ezberdinetan hurbiltasunagatik dagokidan puntuazioa?**

Ikasgunean, Interneteko familientzako Hezkuntza Sailaren atalean (<https://ikasgunea.euskadi.eus/eu>), bilatzaile bat daukazu informazio hori lortzeko ("Helbidearen hurbiltasunak emandako puntuak").

### **Non kontsultatu ahal izango ditut eskatzaileen eta onarpenen zerrendak?**

Prozesuaren gardentasuna eta izaera pertsonaleko datuen babesa bateratzeko, eskatzaileen eta esleipenaren zerrendak ez dira argitaratuko ikastetxeen iragarki-tauletan, baina interesatu guztiek zuzeneko sarbidea izango dute Ikasgunean, Interneteko familientzako Hezkuntza Sailaren atalean, eskatutako ikastetxe bakoitzaren mailari dagozkion zerrenda osoetara. Horretarako aurretiko erregistroa eskatuko da. Interneterako sarbiderik ez izateagatik behar baduzu, eskatutako ikastetxeetan dagozkizun zerrendetarako banakako sarbidea eskatu ahal izango duzu.